

JARRI PREST ZURE BIZIKLETA MUGIREKIN!

¡PON A PUNTO TU BICI CON MUGI!



MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA 2021
SEMANA DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE 2021

Bizikleten doako azterketa programa
Campaña de revisión gratuita de bicicletas

PROGRAMAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK - BIZIKLETA DENDAK

Cipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolamendu Sailak antolatutako **2021 Prest jarri zure bizikleta mugirekin!** programarekin bat egiten duten saltokiek baldintza hauek onartzen dituzte:

- Kanpaina irailaren 16tik 30era bitartean burutuko da, denbora tarte horretan denda kolaboratzaileek Mugi txartel pertsonalizatu baten erabiltzaileak diren bezeroei doako berrikuspen zerbitzua eskainiko diete.

- Kolaboratzen duten dendek sustapen materiala jasoko dute:

- Promozioko kartela erakusleihoan jartzeko.
- Bezeroei zuzendutako flyer informatiboak (50 unitate inguru denda bakoitzeko), non kanpainaren baldintzak eta datu pertsonalen inprimakia azaltzen diren.

- Programaz baliatu ahal izateko Mugi txartel pertsonalizatua eduki behar da. Bezeroei Mugi txartela daukatela egiaztatzeko eskatuko zaie berrikuspen zerbitzua egin aurretik.

- Bizikletak entregatzen dituzten bezeroek beren datu pertsonalak eta beharrezko datuak bete beharko dituzte eskuorrian (flyer-a) jasotako inprimakian. Bizikleta aztertzeko entregatzen denean, dendako arduradunak paperezko inprimakia jasoko du.

- Kanpaina hasi baino lehen, dendek posta elektronikoz jasoko dute online inprimakiaren esteka zuzena, non ekimenean parte hartzen duten pertsona guztien datuak sartu beharko dituzte urriaren 4a baino lehen.

- 2021 programan parte hartzeagatik, denda bakoitzak 600,00 euroko ordainketa jasoko du, programa amaitzean fakturatuko dena.

Denda kolaboratzaileek onartzen dituzten konpromezuak:

- Saltokiek konpromisoa hartzen dute deskribatutako zehaztapenen arabera berrikuspen zerbitzua burutzeko, baita bezeroarentzako doako aurrekontua aurkezteko ere, azterketaren ondorioz beharrezkoak ikusten diren konponketa posibleak edota ordezko piezak zehaztuz. Lan eta materialak honen kostua, behar den kasuetan, bezeroak hartuko lituzke bere gain.

- Zerbitzuaren onuradun guztien datuen bilketa (paperezko flyer inprimakia) eta ondoren online formularioan sartzea urriaren 4a baino lehen burutzea (50€ko bonuen zozketa burutuko den eguna).

- Programa amaitzean, ebaluazio-galdetegi labur bat erantzun beharko du denda bakoitzak, programa ebaluatzeko eta denda kolaboratzaileen asebetetze maila ezagutzeko erabiliko dena.

JARRI PREST ZURE BIZIKLETA MUGIREKIN! ¡PON A PUNTO TU BICI CON MUGI!



**MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA 2021
SEMANA DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE 2021**

**Bizikleten doako azterketa programa
Campaña de revisión gratuita de bicicletas**

ZOKKETAREN BALDINTZAK - PROGRAMAREN ERABILTZAILERAK

Bizikletaren doako ikuskapenaren onuradun guztiek parte hartu ahal izango dute zozketan izena emateko orria betetz, gutxienez beren helbide elektronikoa eta Mugi zenbakia adieraziz. 50 euroko 2 bono zozketatuko dira denda bakoitzean bertan bizikleta materiala erosteko. Zozketa urriaren 4an egingo da eta irabazleak aste berean jakingo dira.

Irabazleek 2 asteko epea izango dute saria onartzeko. Erantzun ezean, saria baliogabetu egingo da. Bonoak gutxienez urtebeteko iraupena izango du edo epe luzeagoa, dendak egokitzat jotzen badu. Zozketa ausazko sistema matematiko baten bidez egingo da, eta bertan galdeketa bete eta bidali duten pertsona guztiek parte hartuko dute.

Adingabe batek zozketan parte hartzen badu eta sariduna suertatuko balitz, gurasoek edo legezko tutoreak saria onartzea beharrezkoa izango da.

Era berean, *Jarri prest zure bizikleta Mugirekin* programaren barruan, berrikuspen zerbitzuaren onuradun guztiek Mugi txartelean 20 euroko birkargen zozketan parte hartu ahal izango dute (20 euroko 60 bono zozketatuko dira). Parte hartu ahal izateko, beren sare sozialetan partekatu beharko dute Mugi txartelarekin eta berrikusitako bizikletarekin agertzen den argazkia, #MugikortasunAstea traola gehituz.

DATU PERTSONALEN BABESA

Datuak Babesteko Klausulak: Mugikortasun Asteko Bonus Zozketa- Bizikleten Ikuskapena

Zozketa honetako parte-hartzaileei jakinarazten zaie beraiekin batera, une honetan edo ondorengo batean jasotako datu pertsonalak ez direla inongo fitxategitan jasoko eta zozketa egiteko eta harremanetan jartzeko erabiliko direla soilik. irabazleekin harremanetan jarri.

Irabazleak izanez gero baimena eskatuko zaie, beren izena sare sozialetan edo hedabide publikoetan iragarkiak egiteko erabiltzeko. Ematen dizkiguzun datuen tratamendua Datuen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko Lege Organikoan (LOPDGDD) xedatutakoarekin bat etorriko da.



by



Gipuzkoako Garraioaren
Lurralde Agintaritzak
Autoridad Territorial del
Transporte de Gipuzkoa